

3.3.4. UDALERRIAK. HERRITARREN SEGURTASUNA ETA ELKARBIZITZA. ZIRKULAZIOA ETA MUGIKORTASUNA.

SEMAFORO-INSTALAZIOA ETA CCTV KAMERAK

2018an, 500 semaforo konpondu ziren istripuen eta instalazioetako matxuren ondorioz (semaforoak, CCTV kamerak, zutoin pneumatikoak, zinemometroak eta neurgailuak). Urtarrilean eta maiatzean egon zen intzidentzia gehien (72 eta 86, hurrenez hurren).

Jarduketa nagusiak, besteak beste:

- Komunikazio-sistema zuntz optikora aldatzea Buztintxuri – Sanduzelai pasabideko hiru kameratan, eta komunikazio-sistema aldatzea Sanduzelaiko eta Fleming Doktoareen kaleko erreguladoreetan.
- Hiru semafororen instalazioa Katalunia Kalean (bi, Mutiloabeiti kalearen gurutzean, eta, bat, Down-en Sindromearen elkartean ondoan).
- Semaforo-instalazioa pultsadorea sakatuz eragiten diren oinezkoendako lau pasabide-tan, Sadar kalean (Sadar estadioaren eta Nafarroa Arena pabilioiaren aurrean).
- Kamera instalatzea, Nafarroa Behereko etorbidean (Apaiztegia), segurtasun-uhalaren erabilera kontrolatzeko etc.
- Katalunia kalearen eta Mutiloabeiti kalearen arteko erreguladorearekin komunikatzeko zuntz-linea.
- Sanduzelaiko etorbideko erreguladoreen komunikazio-sistema zuntz optikora aldatzea, eta Landaben-Orkoiengo erreguladorea zentralizatzea.

SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK (ALDE ZAHARRA ATSEGINAGO EGITEA)

Hiriko Alde Zaharreko sarbideak matrikulak irakurriz kontrolatzeko ezarritako sistema (zutoin pneumatikoen ordeztu) nabarmentzen da. Erabat eraginkorra izan dadin, kamerak ezarri ziren auzoko sarrera eta irteera guztietan. Kontrolgune hauek daude: Nagusia-Basotxo (sarrera-irteera), Nueva (sarrera), San Anton-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-Navas de Tolosa (irteera), Sarasate pasealekua-San Ignazio (sarrera), Espoz y Mina (sarrera), Estafeta (sarrera), Labrit-Mesedeetakoa-Artzapezpikutza (sarrera), San Agustin (irteera), Karmen (sarrera-irteera), Santo Domingo (sarrera) eta Hezkuntzako aparkalekua (irteera).

Udalak TOK TOK izeneko aplikazioa ezarri zuen sarbide horiek erregistratzeko.

SARBIDE MURRIZTUKO EREMUKO IZAPIDEAK	2017	2018
Izapide informatikoak	38.604	105.591
Sarbide iraunkorrerako baimena	13.172	5.080
Unean uneko eta aldi baterako sarbiderako baimena	10.425	82.754
Tratatutako erregistro-eskaerak	351	146
Izapidetutako zinegotzi-ebazpenak	165	49

ĀPARKATZE ARAUTUKO TXARTELAK ETA TAO PLAZAK

TAOk araututako aparkatze-tokien kopurua: 22.706. Horietatik, 9.259 urdinak dira, 338 gorri-berdeak, 28 gorriak eta 10.007 laranja.

2018an, 28.198 bizilagun-txartel eta 724 jarduera-txartel egin ziren.

SEKTOREA	Bizilagun-txartelak	Jarduera-txartelak
1 (Alde Zaharra)	2398	1
2 (Zabalgunea)	5099	53
3 (Arrosadia-Azpilagaña)	3945	55
4 (Iturrama)	6.728	250
5 (Mendebaldea-Erripagaña-Etxabakoitz Iparraldea)	5.196	180
6 Donibane	4.832	185
TOTAL	28.198	724